

Elgoibar - 1304. zenb.  
XXX urtea - 2023-11-03



TOKIKOM

BARREN

# Beldurgarria izan da





ARMUETA HARATEGIA (Elgoibar)

URRIAK 28 - AZAROAK 11

Gure harategietan erosi eta irabazi doan baserriko arrautzak eta txistorra hilabetez!

🌐 harakinakgipuzkoo.eus 📱 @harakinakgipuzkoo



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

# TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



"Axarko" ipuinak



Bozgorailuak



Mantak



Ilerako maskarilak



Txirindulari jantziak



Kamisetak



Bridak



Eztia



Buff-ak



"Yulen, 100 urte" liburuak



📞 643 499 169

📞 943 741 626

✉️ [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Maialen Sanchez

Idazlea

## Agur, bizilagunak!



**"Zergak ordaindu arren,  
oinarrizko zerbitzu batzuk  
gabe bizi dira herritar asko,  
eta badirudi  
inori ez diola axola"**

**A**gur, bizilagunak! Zoritxarrez familia askok esan eta sentituko dute esaldi hori beren bizitzako uneren batean. Zergatiak askotarikoak izan daitezke, eta horiek saihestea zaila izaten da gehienetan. Baina, gaur, ezintasun handiena sor dezakeen arrazoietakoa bati buruz hitz egingo dizuet; administrazioen konpromisoarekin, pertsona askok beren etxea eta auzoa uztea eragotzi dezakeen arrazoiari buruz.

Ekologiari, iraunkortasunari edota ingurumena zaintzeari buruzko zuzeneko mezuak jasotzen ditugun garai batean bizi gara. Nork ez du ikusi garraio publikoa erabiltzera animatzen gaituen iragarkirik? Edo hirian bizikletaz mugitu eta ontzi guztiak birziklatu behar ditugula esaten digunik? Aholku horiek guztiak oso ondo daude. Aholku horietako batzuk betetzea garrantzitsua dela uste dut, baina auzo edo herri guztiak al dute horiek egiteko aukera berbera?

Hau da, bizi garen tokian ba al daukagu baldintza horiek betetzeko tresnarik? Ez, guztiz ez. Adibidez, autobus geltoki edo tren geltoki batetik hurbil bizi denak ez du pentsatzen nolakoa izango litzatekeen bere eguneroko bizitza zerbitzu hori gabe. Uste dut ez garelako jabetzen garraio publikoko sare solidoa edukitzearen garrantziaz. Zerbitzu horiek gabe, nola joango ginatete lanera, edo medikuarengana? Bestalde, inork gutxik aukeratzen ditu oinarritzko zerbitzuak eskaintzen ez duten herri edo auzoak bertan erroak botatzeko. Zergak ordaindu arren, oinarritzko zerbitzu batzuk gabe bizi dira herritar asko, eta badirudi inori ez zaiola axola, baina etxetik hurbil garraio publikoaren geralekua izatea funtsezkoa da leku baten egunerokotasunerako eta etorkizunerako.

Gure auzoei aurrera egiteko eta haietan bizi-kalitatea hobetzeko aukera kentzen edo murrizten badiegu, despopulazioaren mamuak mehatxatuko ditu; izan ere, komunikaziorik gabeko lekuek desagertzeko joera dute, bizitza oso zaila baita oinarritzko zerbitzuetatik urrun. Herritar guztiok ditugu gure betebeharrak eta horiek betetzen baditugu, aukera berdina izan beharko genituzke bigarren mailako herritar ez sentitzeko. Ahaztuta ez sentitzeko.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Bihar Bilbora!**

Bihar, azaroak 4, euskalgintzak deitutako manifestazio nazionala egingo da Bilbon, 17:00etan Euskaldunatik abiatuta. Azkenaldian areagotu egin dira auzitegietatik euskararen sustapena eta normalizazioa helburu duten hainbat neurriren aurkako sententziak, eta ez dirudi azkenak izango direnik. Argi dago ez direla sententzia isolatuak, baizik eta botere judizialek hizkuntza politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarron hizkuntza eskubideak murrizteko joera gorakorra: oldarraldi bat!

Hizkuntza aniztasunean, justizian eta berdintasun sozialean sinesten dugun pertsona eta kolektibo guztiei deia egin digute,

oldarraldiaren aurrean euskararekin eta euskaraz bat egitera.

Euskal Herriko ia herri guztietan autobusak antolatu dituzte, Elgoibarren eta Mendaron ere bai. Bilboko kaleak bete behar ditugu; ezin gara oldarraldi honen aurrean geldirik geratu. Ni bertan izango naiz. Animatu zuek ere!

A. A.

Eskertzak eta urteurrenak




943 743 704 / 943 744 112  
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



***Betirako gure bihotzetan***

## Bizitza eta heriotzaren inguruan hausnartzeko egitarau oparoa antolatu du Almaur elkarteak



**B**izitzaren parte da heriotza, baina hala ere, gai tabua da oraindik gizartean. Horregatik, gai honen inguruko alderdi asko ilun samar izaten ditugu gure baitan, eta hain justu ere gai horietan argi egitera dator Almaur elkartearen urritik abendura bitarteko egitaraua. Horren barruan, hitzaldiak, solasaldiak ipuin-kontaketa saio bat eta harremanak ulertzeko tailerra antolatu dute abendura bitarterako.

Hasteko, eta *Dando vida a la muerte* estatu mailako programaren baitan, *Hil arte nahi dut* izeneko murala jarriko dute aurten Kultur Etxean, hirugarren urtez aurten, herritarrek beren gogoetak idatzi ditzaten bertan. Azaroaren 20rako, berriz, suizidioaren inguruko hitzaldia lotu dute Izaskun Andonegirekin. Bidegineko zuzendaria da Andonegi, doluan aditua. Kultur Etxean izango da hitzaldia, 18:30ean eta izena eman beharko da honako telefono zenbakira whatsapp idatzita: 627 117 819.

Azaroaren 30erako, berriz, Manex Beristain (Azpeitia, 1977) irakasle eta idazlea gonbidatu dute. Bikotekidea galdu zuen Beristainek eta

bi umeren aita da, eta *Azken galdera amari* liburua idatzi berri du bere bizipenetatik abiatuta. Aurkezpena gurasoei seme-alabekin gerturatzeko proposatu die. Azkenik, abenduaren 21erako, eta Gabonen testuinguruan, Aulki Hutsak saioa antolatu dute. Almaur elkarteak Iñaki Arregik zuzenduko du saioa, eta familietan falta ditzutenen hutsunea Gabonetan nola kudeatu landuko dute, besteak beste. Suizidioaren inguruko hitzaldia bezala, beste bi saio hauek ere Kultur Etxean izango dira, 18:30ean hasita, eta izena eman beharko da whatsappez baterako zein besterako: 627 117 819.

Guzti horrez gain, baina, harremanak ulertzeko tailerra ere antolatu du Almaurrek. Hiru saioko tailerra izango da, eta Belen Capapé dantzaterapeutak bideratuko ditu. Azaroaren 19an, eta abenduaren 3an eta 17an izango dira saioak, Lila Emakumeen Etxean, 10:00etatik 14:00ak arteko ordutegian. Tailer honetarako Elgoibarko Udalaren diru laguntza jaso du Almaurrek eta interesatuek izena eman behar dute aurrez, 656 869 534 telefono zenbakira whatsapp idatzita.

### Soinu ekipo berria erosi du Mendaroko Udalak

Aspaldiko eskaera izan da herrian soinu ekipo berria erostekoa, Udalak zeukan ez zuelako bermatzen gutxieneko kalitatea herrian egiten ziren ekintzetan. 900 watioko bi bozgorailu eta 12 kanaletako mahai bat izango ditu ekipo berriak. Orain, prestakuntza saio bat antolatzeko da

Udalak, soinu-ekipo berria nola erabili azaltzeko herriko eragileei. Elkarte edo talde bakoitzeko arduradun bat ere izendatu nahi dute, erabilera egokia egiten dela zaintzeko ahaleginean. Aurrerago zehaztuko diete eragileei noiz eta non izango den formazio saio hori.

## Inguruko mendien tontorrak identifikatzeko plaka lapurtu dute Karakaten

**K**arakateko mahaian zegoen irudia lapurtu zuten astelehenean. Dolmen itxurako hiru harriren gainean kokatutako brontzeko biribila zen, erliebean egina, eta Karakate gainetik ikus daitezkeen Euskal Herriko mendi tontor nagusiak eta inguruko toki esanguratsuenak erakusten zituen: baserri auzoak, itsas ertzeko erreferentziak... 2002an jarri zuten behatoki hori Karakate gainean, Elgoibar eta Soraluze banatzen dituen mugan. 10.000 euroko kostua izan zuen.



### EHBilduko kideak herritarrekin batuko dira, haien beharrak ezagutzeko

Aurreko legealdiko dinamikari jarraituko dio Elgoibarko EHBilduk, herritarren beharrak ezagutzeko. *Maite duzun Elgoibar* lemapean, auzoz auzo egingo dituzte bilerak, auzotarrek euren auzoa hobetzeko dituzten proposamenak entzuteko. Datorren azaroaren 8an, beraz, Toletxe, Artetxe eta San Pedro kaleetako bizilagunekin bilduko dira, Pedro Mugurutzako eskolan. 19:00etan izango da.

### Azaroaren 30era arte trukatu daitezke Bizi-Bizixa kanpainako bonoak

Elgoibarko Udalak 4.000 bono atera ditu Elgoibar Bizi-Bizixa kanpainaren barruan, eta herritarrek azaroaren 30era arte trukatu ahal izango dituzte bonoak dendetan. Bonoak establezimenduetan erosi behar dira erosketa egiten den unean, eta gutxienez 5 euroko gastua egin behar da, eta gehienez 60koa. Erosleak %25eko deskontua jasoko du. Oraingoan 51 dendak eman dute izena, eta bakoitzak 78 bono izango ditu.

### 160 ume ibili dira kalabaza lapurraren bila Kluedo jolasean

Gaba Beltzaren harira, Kluedo jolasa antolatua zuten joan zen barikurako, Atxutxiamaikako *Aldenik Alden* egitasmoaren barruan, eta 160 umek hartu zuten parte. Taldeka banatuta argitu behar zuten misterioa: Nork lapurtu zituen Gaba Beltza egunerako kalabazak? Lortutako pistei tiraka herriko hainbat txokotatik pasatu ziren, eta misterioa argitu ostean Aita Agirre Kulturgunean batu ziren elkarrekin afaltzeko.



## Garraio publikoaren auzian ez da adostasunik egon Elgoibarko udalbatzaren osoko bilkuran

**G**arraio publikoari buruzko mozioa aurkeztu zuen EHBilduk martitzeneko osoko bilkuran. Tren eta autobus zerbitzua hobetzeko eskatzen zuten mozioan, eta lau puntu zehaztu zituzten: Elgoibar-Bilbo noranzkoan bezala, Elgoibar-Donostiarakoan ere maiztasuna ordu erdikoa izatea; Elgoibartik Bildora eta Gasteizera joateko autobus zerbitzua ezartzea; tren eta autobus zerbitzuen ordutegiak egokitzea, biak berdinak izan ez daitezen; eta Altzolako tren geltokiari buruzko auzo batzar bat egitea, altzolarren garraio beharrak ezagutzeko. Osoko bilkurak ez zuen mozio hori onartu: EAJ eta PSE-EEren kontrako hamar boto eta EHBilduren aldeko zazpi jaso zituen.

EHBilduren mozioaren aurrean, gai berari buruzko kontramozioa aurkeztu zuen Udal Gobernuak. Udal Gobernuak mugikortasunari begira daukan estrategia azaldu nahi izan zuen kontramozioarekin. Garraio publikoa garrantzizkotzat jotzen dutela adierazi zuten, eta gaineratu zuten horren adibide direla Eusko Trenbide Sarearekin eta Lurraldebusekin eskuartean dituzten proiektuak. Udalbus zerbitzua eta gaueko taxi zerbitzua nabarmendu zituzten, eta legealdi honetarako auto taxi zerbitzua hobetzeko konpromisoa hartu dutela gogoratu zuten. Kontramozioan Udalari lau eskaera egin zizkioten: ETSrekin elkarlanean jarraitzeko eskatu zioten Udalari, eta Arriaga auzoan egiten ari diren obren informazioa lurralde batzordera eraman dezala;



Lurraldebusekin lankidetzaren areagotzea gaur egun dagoen autobus zerbitzua egokitu, hobetu eta trenaren ordutegiarekin koordinatzeko; Elgoibarko Udalak, dagokion erakundeekin lankidetzaren ekin dezala autobus zerbitzu berriak Elgoibartik Bilbora eta Gasteizera joan ahal izateko eta, azkenik, Altzolako auzotarrekin elkarriketan jarraitu dezala eskatu zuten, beraien mugikortasuna bermatu eta hobetzeko helburuarekin. Kontramozioak egin zuen aurrera, EAJ eta PSE-EEren aldeko hamar botorekin eta EHBilduren kontrako zazpirekin.

### Virginia Imazek hitzaldia emango du datorren astean

Haizea Emakume Taldeak hitzaldia antolatu du datorren martitzenerako. Virginia Imaz izango da hizlaria, eta eguneroko bizitzan sormenak duen eraginaz jardungo da. Imaz clown bezala egon izan da aurretik Elgoibarren, baina oraingoan hizlari moduan etorriko da. 18:00etan izango da, doan, Lila emakumeen etxean.





# EUSKARAREKIN BAT EGIN ETA EUSKARAZ BAT IZATERA DEITU DUTE

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Asier Orbea

Bilboko kaleak betetzera deitu du biharko Euskalgintzaren Kontseiluak, euskararen normalizaziorako eman diren pausoak ezeztatzeko epaitegietatik etorri diren epaien kontra, eta helburu horrekin berarekin hirurehunik gora euskaltzale batu ziren Elgoibarren joan zen eguenean Elgoibarko Euskarak 365 Egun taldeak eta Mendaroko In Leike kultur elkarteak deituta. Bihar Bilbora joateko autobusa ere antolatu dute Elgoibartik eta Mendarotik. Egueneko bideoa ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus).

**E**uskararekin bat egin eta euskaraz bat izatera deitu zuten euskalgintzatik, eta halaxe, bat eginda, agertu ziren joan zen eguenean Elgoibarren herritarrak. Elgoibarko Euskarak 365 Egun Taldeak eta Mendaroko In Leike kultur elkarteak antolatu zuten elkarretaratzea eta hizkuntza-aniztasunean, justizian eta berdintasun sozialean sinesten duten eragile

eta norbanako guztiei egin zieten Kalegoen plazara batzeko gonbidapena, herritar guztien eskubideen alde egiteko denen indarra beharko dela sinetsita. Ekitaldian, bost lagunek hartu zuten hitza: Elgoibartik, Maialen Gurrutxaga alkateak, Aitziber Aranberri EHBilduko zinegotziak eta Markel Goenaga Euskarak 365 Egun Taldeko kideak, eta Mendarotik, Enez Ezenarro alkateak





eta Ibon Aginaga UEMako euskara-teknikariak. Ekimenarekin bat egiteko dituzten arrazoiak zerrendatu zituzten eta dei egin zieten herritarrei biharko mobilizazioan parte hartzerako. Ondoren, Irati Agirreazaldegik, Jone Olaizolak eta Eneritz Azkuek sortutako bertsoak kantatu zituzten plazara bildutako guztiek elkarrekin, Mikel Etxaniz eta Miguel Laguna musikariek perkusioarekin eta gitarrarekin lagunduta.

### MANIFESTAZIOA BIHAR, BILBO

Euskalduna jauregitik abiatuko da bihar manifestazioa, 17:00etan, *Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean, eta manifestaziora joateko autobusa egongo da Elgoibartik eta Mendarotik aurrez izena emandakoentzat. 15:00etan irtengo da Mendarotik eta Txankakuako geltokitik 15:10ean. Era berean, manifestaziora joan ezin dutenentzako atxikimendua emateko bidea ere zabandu du Euskalgintzaren Kontseiluak Internetez: [kontseilua.eus](http://kontseilua.eus).



## AITOR BERGUA

Lagunak Pilota Eskolako arduraduna

 Ainhoa Andonegi

*“Umeek pilotaz gozatzea da gure helburu nagusia”*



Denboraldi berriko taldea aurkeztu du Lagunak Pilota Eskolak Ikastolan. Aurten, gainera, pandemia sasoitik etenda egon den pilota eskola ere martxan jarri dute, eta 40 bat gaztetxok eman dute izena. Pilota

Federatuari dagokionez, lau pilotari ditu Lagunakek, bi seniorretan eta bi kadeteetan. Palan, bestalde, bederatzita bat pilotari ari dira lehian. Aitor Bergua (Elgoibar, 1974) da une honetan Lagunak elkarteko arduraduna, eta zenbait gurasoren laguntzaz dihardute lanean. Elkarteko ateak zabalik daudela nabarmendu du Berguak, eta laguntza oro ondo etorriko litzaiekeela.

### **Zein da Lagunak Pilota Elkartearen egungo egoera ?**

Pandemia garaitik pilota eskola etenda egon da, eta aurten berreskuratu dugu, 40 bat pilotarekin. Pozik gaude alde horretatik, baina pilota egoera larrian dago herri guztietan. Kirol

gogorra da, indibiduala eta aurrera segitzea zaila da. Umetan oso pozik ibiltzen dira umeak, baina gero laga egiten dute. Kategoriaz igo ahala pilota gogortu egiten da, eta oinarrizko teknika eduki arren, pilota berriarekin jokatzeko ikasi behar dute berriz, takoak ere hobeto ipini behar dira minik ez hartzeko... gogorra da.

### **Zein helburu daukazue aurtengo denboraldirako?**

Une honetan gure helburu nagusia umeek pilotarekin gozatzea da, eta ahal bada, norbaitek aurrera segitzea. Une honetan lau pilotari ditugu federatuta esku-pilotan. Palan jende gehiago daukagu. Kirol errazagoa da pala, ez da minik hartzen, eta behin ikasita, entrenatuz gero, hobetzen joaten zara. Palan lau bikote ditugu maila gorenean. Egoera orokorra da, herri guztietan gertatzen da. Pandemiak ere kalte egin zigun; etenaldia egon da urte batzuetan eta ez zegoen umerik. Futbolak eta eskubaloiak ere, ume asko erakartzen dituzte, eta horri aurre egitea zaila da. Neska gehienak ere futbolera edo eskubaloira



joaten dira, eta pilotan bakarra daukagu. Elgoibarren eskolaz kanpoko aukera handia dago, eta umeak ezin dira denera iritsi. Eskola Kirolean ere ez dute asko lantzen esku-pilota, eta hor sartzeak agian lagunduko luke. Ikastolak antolatzen du Pilota Eguna, eta horren aurretik ikastetxean praktikatzen dute; eskertzekoa da. Udalak orain esan digu baduela interesa kirol minoritarioei laguntzeko, txirringarritari eta pilotari, esaterako. Garrantzitsuena ekintzak antolatzea da, umeek pilotan jokatzeko aukera izan dezaten, hori delako azken batean beraiei gustatzen zaiena; jokatzea eta ondo pasatzea. Baina horretarako dirua behar da, eta nik badakit Udalak ezin duela dena finantziatu, elkarte asko daudelako herrian. Horregatik jotzen dugu denok babesle pribatuetara. Guk aurten Haizelur enpresaren laguntza lortu dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiot.

### **Nola sartu zinen zu elkartean?**

Beti izan naiz pilotazalea, eta betidanik ibili izan naiz jokatzeko: hasieran esku-pilotan eta gero palan. Baltasar elkarteak zeukan hasieran Elgoibarren pilotaren ardura, eta hango kideek sortu zuten Lagunak elkarte. Arduradunak errelebo bila hasi ziren, eta ez zuen inork errelebo hori hartzen. Ordagoa bota zuten, eta palan jokatzeko guren taldeko kideek animatu ninduten zuzendaritzan sartzerako, beraiek

lagunduko zidatela esanez. Nire semeak ere pilotan jokatzeko adinera iristen ari ziren, eta nahi nuen beraiek pilotan jokatzea, baina batez ere, ez nuen nahi Elgoibar pilota elkarterik gabe gelditzerik. Ume asko edo gutxi egotea elkartean beste kontu bat da, baina elkarterik ez badago, ez da inor ibiliko pilotan. 2014an sartu nintzen ni, eta aurreko taldetik Antonio Azpiazu bakarrik geratu zen. Lehendakari postua hartu zuen, eta berarengandik ikasi genuen besteok. Lan handia egin zuen Antoniok herrian pilotaren alde.

### **Merezitako omenaldia egin zenioten sanbartolomeetan.**

Bai, justuan iritsi ginen, baina pozik gaude garaiz iritsi ginelako. Gizon ona zen, eta beti zegoen laguntzeko prest. Gaixorik zegoela bagenekien, eta merezi zuen errekonozimendu bat. San Bartolome Egunean egin genion ikastolan, eta oso hunkigarria izan zen. Aurpegian ikusten zitzaion eskertuta eta hunkituta zegoela. Lan handia egin zuen elkartean. Nik berari laguntzen nion eta berak niri. Egia da jende gutxi dagoela elkartean, guraso batzuk sartu dira orain, baina eskertuko genuke jende gehiagoren laguntza. Nik ahal dudana egiten dut, baina ez naiz denera iristen.

### **San Anton pilota txapelketak eta Kalegoen plazako pala txapelketak izaten dute arrakasta. Elgoibar herri pilotazalea dela esango al zenuke?**

Ikusteko zaletasuna badagoela esango nuke. San Anton txapelketara afizionatu mailako pilotaririk onenak ekartzen ditugu, profesioaletara jauzia emateko atarian daudenak, eta giro polita sortzen da frontoian. Plazako pala txapelketak oso ondo funtzionatzen du, bai partaidetza aldetik eta baita ikusle aldetik ere. Antolakuntzarako behar dugu laguntza hor ere. Iaz deialdia egin genuen eta ez zen inor agertu. Baina, ikusita arrakasta daukala, ahal dugun moduan eutsiko diogu.

### **10 Bai taldea sortu zuten garai batean, 10 koadroko frontoia eskatzeko. Zein egoeratan dago frontoi berriaren proiektua?**

Geldirik dago, eta ikusita herrian une honetan pilotak daukan egoera, normala iruditzen zait. Frontoia baldintza duinetan behar dugu, baina frontoi berririk ez dut uste behar dugunik. Ikastolako frontoian itokinak izaten ditugu, eta bai eskertuko genuke frontoia berritzea.

## Elgoibarko dantza sistemaren bilakaera aztertuko dute azaroaren 18an

**Z**er dantzaten da Elgoibarren? Elgoibarko dantza-sistemaren bilakaera Gipuzkoako dantza-eskolaren testuinguruan izenburuko mintegia antolatu dute Dantzan elkarteak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak elkarlanean azaroaren 18rako. Elgoibarko Kultur Etxean izango da mintegia, doan, 10:00etatik 13:00etara, baina interesatuek izena eman behar dute *Dantzan.eus* webgunean sartuta. Mikel Sarriegik (Beasain, 1965), Beasaingo Aurtzaka dantza taldeko dantzari, zuzendari eta ikertzaileak, emango du mintegia.

Gipuzkoako dantza sistemaren inguruko ikerketa lan sakona egin du Mikel Sarriegik, eta ikerketa lan horretarako hainbat dantzari elgoibartar ere elkarriketatu ditu, tartean Peli Uriguen, Iñaki Gorostiza, Mauxitxa, Ion Arrieta, Iñaki Gil, eta



Sebas Larrañaga. Eta Elgoibarren, ikerketa lan horren aurkezpena egingo du. Elgoibarko dantza-sistemaren bilakaerari erreparatuko dio Sarriegik Gipuzkoako dantza-eskolaren testuinguruan. Lehendabizi, Gipuzkoa osoko dantza-maisuek gorde duten eta hain ezaguna ez den Iztuetaren oinordetza horren ezaugarri nagusienak aurkeztuko ditu. Ondoren, joan den mendean Elgoibarren ezagutu zen dantza-sistema, aurreko horren testuinguruan nola kokatzen den azalduko du, eta modu praktikoa erakutsiko du gero azalduko, elgoibartar dantzari ohien laguntzarekin.

### Dantza urbanoi buruzko ikastaroa antolatu dute Elgoibarren eta izena emateko epea zabalik dago

Dantza urbanoi buruzko ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udal Kiroi Patronatuak 4 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteentzat. Astelehen eta eguaztenetan izango dira eskolak, Olaizaga kiroldegian, 17:00etatik 17:50era bitartean. Izena emateko epea zabaldu dute eta interesa dutenek Olaizaga Kiroldegian eman dezakete izena edota [olaizagaharrera@hotmail.es](mailto:olaizagaharrera@hotmail.es) helbidera mezu elektronikoa idatzita. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 744 415 telefono zenbakian eskura daiteke.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez ekimen honen helburua haurrei dantzatzeko beste aukera bat zabaltzea da, bai eta mugitzeko trebetasunak hobetzeko eta sormena garatzeko espazio bat eskaintzea ere, dantza-estilo moderno eta erakargarrien bidez.

### Bi talde osatu dituzte Mendaroko bertso eskolan



Iaz euskara taldekoekin eta Bertsozale Elkarteekin elkarlanean sortutako bertso eskolari jarraipena ematea erabaki du Mendaroko Udalak. Aurten, baina, eskaintza LH4tik DBH3ra artekoekin zabaldu diete, eta bi talde osatu dira. Irune Basagoiti bertsolariak ematen ditu eskolak, astelehenetan, gaztelekuan, eta urteko kuota 40 eurokoa izango da aurten. Ikasleak bertsozaletu nahi dituzte bertsoaren teknika eta komunikazio estrategiak garatuz, eta besteak beste honako hauek landuko dituzte: arrazoketa eta bestearen lekuan egoten ikastea, ahozko komunikazioa, eta herriko, eskualdeko eta euskal herriko kultur erreferentziak.

## 'Arrakasta' izeneko saiakera argitaratu du Jasone Osorok

**B**ere estreinako saiakera liburua argitaratu du Jasone Osoro idazleak (Elgoibar, 1971), Elkar argitaletxearekin: Zer da arrakasta galderarentzako hiztegiek eta filosofoek ematen dituzten definizioetatik abiatu da Osoro eta liburu interesgarri eta entretenigarria osatu du, arrakasta lortu duten hamaika laguni egindako elkarrizketak, bere oroitzen eta esperientzia propioak eta beste zenbait autoreren esanak eta gogoetak bilduta. Honako hauek dira libururako elkarrizketatu dituen lagunak: Joxemari Agirretxe *Porrotx* pailazoa, Eneko Atxa sukaldaria, Izaro Andres musikaria, Harkaitz Cano idazlea, Eva Domingo kazetaria, Maider Egues kazetaria, Jon Garaño zine-zuzendaria, Aizpea Goenaga antzerkilaria, Markel Irizar txirrindularia, Itziar Ituño aktorea eta Gorka Urbizu musikaria.



Elkarrizketatuek beren bizipenak kontatu dituzte, eta arrakastarekin izan duten harremanaz mintzatu dira, luze eta zabal. Protagonistei egindako elkarrizketak baina, ez ditu bere osoan eta jarraian eman Osorok. Zortzi ataletan banatu du liburua eta gaika multzokatu ditu haien erantzunak. Hau da, antzeko gaien inguruan batzuek zein besteek esandakoak hari finez josi ditu, eta bere gogoeta propioekin nahiz beste autore batzuen ekarpenekin osatu ditu. Liburua Elgoibarren ere aurkeztekoa du Osorok, Pitzintxun, azaroaren 8an, 19:00etan.

---

## 'Subcampeón' liburu autobiografikoa argitaratu du Zuhaitz Gurrutxagak Ander Izagirre kazetariarekin batera

*Subcampeón* autobiografia gordin eta zintzoa idatzi dute Zuhaitz Gurrutxaga futbolari ohiak eta Ander Izagirre kazetari eta idazleak lau eskutara. 19 urterekin bizitzako ametsa bete zuten Gurrutxagak: Realarekin Espainiako Ligako Lehenengo Mailan debutatzea, baina debutatu eta aldi batera jasangaitza egiten hasi zitzaion futbolari profesionala izateak sortutako presioa; hondoan jotzerainoko jasangaitza. Horixe du muina baina bere ibilbide osoaren kontaketa egiten du.

"Beldur handia nion zelaian huts egiteari. Sufrituarazi zidan guztiagatik gorrotatu nuen futbola", idatzi du Gurrutxagak berak liburuaren aurkezpenean. Udako gau batean burua lehertu zitzaioela kontatu du, eta betiko erotu zela uste izan zuela. Ez zeukan berbarik gertatzen zitzaiona esateko, ez zen inori esatera ausartzen, eta futbol-zelaian ahal zuen moduan disimulatzen saiatzen zen. Gurrutxaga Realarekin Ligako txapeldunorde izendatu zen egun berean, ama ikaratu egin zen semearen portaerarekin eta psikologo baten



Azaroaren 9an, 19:30ean, Reale Arenako Keler espazioan dute aurkeztekoa liburua eta ordurako ateratako argazkia duzue goikoa.

konsultara eraman zuen. Antsietatea, depresioa eta nahasmendu obsesibo-kompulsibo larria diagnostikatu zioten, baina Gurrutxagak ez zuen hala ere umorerik galdu, eta bere minetik umorea egitea lortu zuen.



# ARIMEN GAU BELDURGARRIA

✍️ 📖 Ainhoa Andonegi  
Asier Orbea / Ainara Argoitia

Martitzenean izan zen arimen gaua, eta mota guztietako munstro zein hildakoez hartu zituzten kaleak Elgoibarren eta Mendaron. Hezkuntza Mahaia antolatu zuen ibilbide iluna Elgoibarren, eta beldurgarria izan zen. Argiak itzali, eta antortxaren suak lagunduta egin zuten Kalegoen plazatik Maalara arteko bidea, tanbor hotsek lagunduta. Dantzan jardun ziren arima galduak kalean zehar, eta txokolate janarekin amaitu zuten kalejira. Mendaron Arno Guraso Elkarteak antolatu zuen festa, Udalaren laguntzarekin. Herriko Enparantzan bi karpa jarri zituzten: batean photocalla eta sorgin beldurgarri bat zeuden, hurrek bildutako harrien truke goxokiak banatzen zituena. Beste estalpean, berriz, eskulanak egiten aritu ziren haurrak. Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)





# ELGOIBARKO KINTOEK HARTU DIT

2018an egin zuten estreinakoz Kintada Eguna, eta bigarren edizioaren ostean, etena egon zen pandemiagatik. Lau urteren ondoren, zapatukoa izan zen beraz, hirugarrena, eta oraingoan ere, kaleak hartu zituzten Elgoibarko kintoek. Eguerdian zuten ordua jarrita Kalegoen plazan, eta 20 taldetik gora batu ziren. Festa giroa nagusitu zen egun osoan zehar herriko kaleetan, eta gauean Maalako parkean izan zuen segida jaiak. Udalak antolatuta, Puro Relajo taldeak kontzertua eman zuen, eta ordura arte bakoitza bere aldetik ibili ziren kintoak batu egin ziren talde nafarraren doinura. 2018ko Kinto Egunean ere eman zuen kontzertua Puro Relajok Maalan, eta orduan moduan, oraingoan ere jendetza batu zuen Oibarren (Nafarroan) sortutako taldeak. Rantxerak, corridoak, doinu latinoak eta euskarazko klasikoak jo zituzten.





# UZTE KALEAK

✍️ Ainhoa Andonegi



## Indarkeria matxistaren kontra, 'Bizirik eta aske' kantatuko dute Elgoibarren



**I**ndarkeria matxistaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira (azaroak 25), hilabete osoko egitaraua prestatu dute Elgoibarko Udalak eta Lila Emakumeen Etxeak, herriko hainbat eragile eta sortzailerekin elkarlanean. Aurten, gainera, soinu banda ere jarri diote egunari Berdintasun Sailak eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak. *Bizirik eta aske kantua* sortu dute, Vivir Quintana konpositore mexikarraren *Canción sin miedo* abestia moldatuta. Aitor Novak eta Silvia Hernandezek zuzendu dute kantua, eta musika eskolako abesbatzak eta hango zenbait musikaririk parte hartu dute grabazioan. Kanta sarean dago dagoeneko, baina azaroaren 25ean bertan aurkeztuko dute jende aurrean, Maalan, iluntzerako antolatu duten manifestazioa bukatu berritan. Izan ere, egun horretarako elkarretaratzea deitu dute (Kalegoen plazan, 20:00etan), eta ondoren manifestazioa egingo dute Maalaraino. Hantxe aurkeztuko dute kantua, eta ondoren, Alarma Morea taldeak kontzertua emango du.

Abestiaz gainera, *Ez zaude bakarrik* izeneko liburuxka ere argitaratu du Udalak, genero indarkeriaren biktima izan diren emakumezkoen testigantzekin osatutakoa. Liburuxka horren azaleko ilustrazioa Janire de Gabriel elgoibartarrak egin du eta Elgoibarko bigarren hezkuntzako ikasleen artean 300 liburuxka banatuko dituzte, indarkeria matxista mota desberdinei buruz hausnartzeko tresna gisa erabili dezaten. Horrez gain, *Inesa Gaxen; sorgin ausart baten istorioa* liburua ere aurkeztuko dute. XVII. mendean, Inkisiziotik ihes egitea lortu zuen Inesa Gaxenek, Nafarroa Beherean jaiotako emakumeak. Haren istorioa jaso du Olaia Irigoien elgoibartarrak eta 6-8 urte arteko umeentzako egokituta eman du ipuin ilustratu honetan. Liburua Lilan aurkeztuko dute azaroaren 11n.

### EGITARAUA

■ **Azaroaren 10etik 26ra:** Gervasio Sanchezen *Indarkeriak, emakumeak, gerrak* erakusketa Kultur Etxeko erakusketa gelan, 18:30etik 20:30era.

■ **Azaroak 10, barikua:** Zazpigarren arteari buruzko kafe tertulia, Lilan, 18:30ean.

■ **Azaroak 11, zapatua:** *Inesa Gaxen; sorgin ausart baten istorioa* liburuaren aurkezpena eta ipuin kontaketa laburra umeentzat. Olaia Irigoien, Uxue Alberdi eta Sara Arriolarekin. 12:00etan, Lilan (euskaraz).

■ **Azaroak 16, eguena:** *Legea baiezkota da* hitzaldia emango du Sheila Melcon Lopez psikologoak, Lilan, 18:00etatik 20:00etara.

■ **Azaroak 18, zapatua:** *Nire ongizatea indartuz* ahalduntze saioa Merlin Medinarekin, Lilan, 16:00etatik 18:00etara.

■ **Azaroak 21, martitzena:** *Sustraiak* dokumentalaren emanaldia, Lilan, 18:30ean. Ander Beizama eta Ander Espallargas zuzendariak bertan izango dira eta saioa euskaraz izango da.

■ **Azaroak 22, eguaztena:** *80 amandre* ipuin kontaketa saioa helduentzat. Dorleta Kortazarrekin. 19:00etatik 20:00etara, Gotzon Garate Udal liburutegian. Eta 21:00etan, *Las buenas compañías* filmaren emanaldia, Herriko Antzokian.

■ **Azaroak 24, barikua:** *Amarau*n antzezlan, Herriko Antzokian, 19:00etan.

■ **Azaroak 25, zapatua:** Autodefentsa emakumeentzat saioa, 09:30etik 12:30era, Olaizaga kiroldegian. Iluntzean, Indarkeria matxista salatzeke elkarretaratzea, 20:00etan, Kalegoen plazan.

■ **Azaroak 27, astelehena:** *Behin bazen neska bat indarkeriarik gabe* gogoeta saioa Loredi Salegik dinamizatuta. Lilan, 18:00etatik 20:00etara, ele bietan.

## Laboral Kutxako txirrindulariek bisita egin diete herriko eskola-umeei

Elgoibarko Udalak eta herriko ikastetxeek emakumeen txirrindularitza ezagutzera eman eta "kirolean genero-berdintasuna" sustatzeko solasaldiak antolatu zituzten joan den barikuan. Hala, Elgoibar Ikastolara eta Herri Eskolara bisitak egin zituzten Laboral Kutxa taldeko zenbait txirrindularik. Batetik, Ikastolan izan ziren Ane Santesteban eta Idoia Eraso txirrindulariak, Aitor Galdos managerrarekin batera. Eta, bestetik, Herri Eskolan izan ziren Eneritz Vadillo eta Lourdes Oyarbide txirrindulariak eta Ion Lazkano kirol zuzendaria. Ikasleek txirrindulari profesionalen egunerokoa gertuagotik ezagutu zuten, haien azalpenak eta bizipenak entzunda. Zapatuan, berriz, txirrindularitza eta atletismoa topaketa egin zuten Mintxetan, eta 100 bat neska-mutilek hartu zuten parte.



### Cross Country moto txapelketa jokatuko dute bihar Idotorben



Zortzi probek osatzen dute aurtengo Euskadiko eta Nafarroako Cross Country Motor Txapelketa, eta Idotorben jokatuko dute zazpigarrena, zapatuan, azaroaren 4an. 13:15ean izango da briefing-a eta lasterketa 14:00etatiik 16:30era jokatuko dute. Sari banaketa ekitaldia 17:30ean hasiko da. Sari banaketa amaitutakoan, emanaldia hasiko du Patxangoi musika taldeak. Txosnan edariak eta ogitartekoak ere salduko dituzte.

### Denborari begira korrika egiten ez dutenentzako saria Karakateko Igoeran

Azaroaren 19an jokatuko dute Karakateko Igoera, eta Morkaikok sari berri bat sortu du aurtengorako, denborari begira saltaka egiten ez duten lagunak parte hartzera animatzeko. Horregatik, ohiko sariez gainera, lehen sailkatuaren denbora bikoizten duen parte hartzailea ere sarituko dute. "Denborara gehien hurbiltzen dena, pasatu gabe", zehaztu dute. Gizonezko zein emakumezko azkarrenak eta lehen elgoibartarrak saritzeaz gainera, igoerako azken zatia aurpegiarik onenarekin egiten duen

parte-hartzailea ere sarituko dute, azken urteetan moduan. Mauxitxako gazta bat izango da saria. Izena ematea doan da eta egunean bertan apuntatu ahal izango da, 08:30etik 10:00etara. 125 parte-hartzailetan jarri dute muga. Irteera 11:00etan izango da. Morkaikotik jakinarazi dute boluntarioak behar dituztela lasterketa antolatu ahal izateko. Kalegoen plazatik Agerre baserri parera arteko bidean dauden bidegurutzeak zaintzeko prest dauden boluntarioak behar dituzte, bereziki.



## 300 jokalari eta hamabost talde ditu Sanlok denboraldi honetan

Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeak hamabost talderekin ekin dio denboraldiari. 300 eskubaloi jokalarik jantziko dute Sanloren kamiseta, 190 emakumek eta 100 gizonezkoek. Senior mailan dihardute hiru taldek, emakumezkoena bat, Malape Taberna taldea, eta gizonezkoenak bi: Alcorta Forging Group eta Pizzeria Salento. Iaz maila galdu zuten talde nagusiek, Malapek eta Alcortak, eta maila bat beherago lehiatzen ari dira

biak, Euskal Ligan. Aldiz, Pizzeria Salento taldeak 1. nazional mailan dihardu, iaz mailaz igotzea lortu eta gero. Jubeniletan hiru talde ditu Sanlok: Deca (Gipuzkoako txapelketa, gizonezkoak), CIMDE (Euskal Liga, emakumezkoak), Deuko Izarra (Gipuzkoako txapelketa, emakumezkoak) Kadete mailan lau talde ditu kirol-taldeak: Salento Gelati (Euskal Liga, neskak), Neurri (Gipuzkoako txapelketa, neskak), Astigarraga GYS Sport

### Mendi zinemagintzako film onenak, gaur, Herriko Antzokian

Bilbao Mendi Film Festivaleko alpinismoko eta eskaladako film onenak emango dituzte gaur (azaroak 3), Elgoibarko Herriko Antzokian, Morkaikoren eskutik. 21:00etatik aurrera lau film labur ikusteko aukera izango da: *Agur Artzai* (27'), *This is Beth* (18'), *New way up* (25') eta Eñaut Izagirre elgoibartarrak eta bere abenturakideek ondutako *Into the Ice* ikus-entzunezkoa. Sarrerak leihatilan salduko dituzte, 4 euroan. Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloaren barruan emango dituzte Film Festivaletik pasatako perlok. Zikloko lehen hitzaldia azaroaren 8an izango da. Islandiara bizikletaz eginiko bidaia kontatzen etorriko da Igone Mariezkurrena Kultur Etxera.

**mendi tour**  
Lortzen duen Mendi Film Festivala

**ELGOIBAR**

**3** Oinarrizko filmak  
€14,00

**Agur Artzai**  
27' - 10:00 - 10:30 - 11:00 - 11:30 - 12:00

**This is Beth**  
18' - 10:00 - 10:30 - 11:00 - 11:30 - 12:00

**New Way Up**  
25' - 10:00 - 10:30 - 11:00 - 11:30 - 12:00

**Into the Ice**  
25' - 10:00 - 10:30 - 11:00 - 11:30 - 12:00



(Gipuzkoako txapelketa, neskak), eta Urkunde (Gipuzkoako txapelketa, mutilak). Infantil mailan hiru talde ari dira lehiatzen: Tecnifuelle eta Bankoa

nesken taldeak eta Zubacor mutilena. Azkenik, alebinetan dihardu Bacalaos Alkorta nesken taldeak.

## Soarteren idiek irabazi dute idi kintopekoen txapelketa Aian

Kintopeko Idi Proben 27. edizioa jokatu dute egunotan Aiako probalekuan. Zapatuan jokatu zuten lehen saioan hiru idi pare lehiatu ziren, eta Elgoibarko Soarteren idiek egin zituzten plaza gehien. 51 plaza osatu zituzten 2.070 kiloko harriari tiraka. Lehiaketako bigarren eta azken jardunaldia astelehen gauean jokatu zuten, eta hor ere hiru idi pare irten ziren probalekura: Iñaki Oliden (Orio), Igone Pagadizabal (Hondarribia) eta Zornotza anaiak (Zalla). Horiek ere ez zuten ondu Soarteren idiek eginiko marka, eta elgoibartarrak eskuratu zuen manta.



**LANA**

**Eskaerat**

Lan egin nahi nuke. Adinekoak zaintzen eta lokalak eta etxeak garbitzen aritu izan naiz aurrez. Berehala lanean hasteko moduan nago. **632 347 444**

Adinekoak zaintzen edota etxeak, tabernak edo beste edozein lokal garbitzen egingo nuke lan, aste barruan. Berehala lanean hasteko prest. **632 319 546**

Adinekoak zaintzeko prest orduka. Esperientzia daukat. **631 489 128**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Esperientzia daukat. **657 797 866**

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Malgutasun handia. **632 915 336**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **632 008 974**

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Orduka. **611 215 176**

**ETXEBIZITZAK**

Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. **633 567 480**

**LOKALAK**

Herriko gazte bat naiz, eta lokal bila nabil, nire zaletasun bat gauzatu ahal izateko. Hilean gehienez 350 euro ordainduko nituzke errentagatik. **685 739 778 (Hodei)**

**KINTOAK**

1948an jaiotakoek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 18an. 12:00etan batuko dira Kalegoen plazan. Interesatuak 65 euro ordaindu behar dituzte azaroaren 16rako. Laboral Kutxako kontu honetan sartu behar da dirua: ES12 3035 0007 25 0071142599.

**BESTELAKOAK**

200 litroko akuariuma salgai, behar dituen osagai guztiekien. Martxan dago, oso egoera onean. **657 79 78 66**




Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.


Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enpresa Administrazioen Kontakide Elkarteak</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure higiezinan hainbat artxibo ditugu, fakturak eta ordainagiriak dituztenak. Jakin nahi nuke zenbat denboran gorde behar den komunitateko dokumentazioa.</b></p> <p>Araudiak dio idazkariak bost urtez zaindu beharko dituela deialdiak, komunikazioak, ahalordeak eta bileretako gainerako dokumentu garrantzitsuak. Bost urteko epean gorde beharrekoa jabeen batzarren deialdiari eta bilerei buruzko dokumentazioa da. Hala ere, komunitatearen dokumentazioa askoz zabalagoa da: Akta Liburuak, kontabilitateko dokumentazioak eta era guztietako korrespondentziak. Zalantzarik gabe, Akten Liburuak jasotzen du Komunitatearen historia osoa, hartutako erabakiei dagokienez. Beraz, dokumentu hori, zehazki, suntsitu gabe zaindu eta gorde beharko da Komunitateak iraun bitartean, komunitatearen beraren desagertzea ere arautu lezaketen akordioak bertan jaso ahal izateko. Fakturak eta gainerako kontabilitate-dokumentuak dagokienez, zerga-legeriak lau urteko epea ezartzen du. Hala ere, egoera batzuetan eduki ekonomikoko dokumentuak egon daitezke, epealdi luzeagoan gorde beharrekoak, iraingitze data desberdina dutelako.</p> <p><b>Gomendioa: bost urteko epean batzarren deialdiei eta bileren ospakizunei buruzko dokumentazio jakin bat zaintzeko legezko bete beharretik kanpo, gainerako dokumentazioaren zaintzadendora desberdina da dokumentu motaren arabera. Beraz, ezin da epe bakar bat ezarri.</b></p> <p> <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Teresa Ines!** Itsasoa bukatzen den lekuraino maite zaitugu!



Mendaroko 1973ko kintook bazkaria egin genuen joan zen astean herrian, eta izugarri ondo pasatu genuen. Bakarren batzuk falta dira Garagartzako elizpean Iñigo Usobiaga lagunak egin zigun argazki honetan, baina hemen gaude gainerakook, pozik, gure 50. urtemugako ospakizunean. Hurrengoan, gehiago!

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### BOSCH WAL28PH1ES ARROPA GARBIGAILUA



**745 €**



- 10 kg-ko karga
- Ecosilence Motorra
- Activewater plus
- Barneko argia
- Speedperfect
- AquaStop
- 1.400 b/min zentrifugatze-abiadura
- LED touch display-a, karga-gomendioarekin

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu ari.

RPS 181/19



## KONTSULTATEGIA

*Zer egin behar dut hortzetako traumatismo baten aurrean?*

*Nire 8 urteko alabak paleta erdia apurtu du eroriko baten ondorioz, eta hortza ustelduko ote zaion beldur naiz. Urgentziaz eraman behar al dut dentistarengana?*

Hortzetako traumatismoak ahalik eta azkarren begiratu behar dira, eta dentistarengana lehenbailehen eramatea gomendatzen dizut, kaltea zenbaterainokoa den baloratu eta tratamendu egokiena jartzeko. Izan ere, traumatismo askok patologia eragin ditzakete epe luzera; horregatik da hain garrantzitsua balorazio bat egitea eta kolpearen ondoren jarraipena egitea. Beraz, zure alabarentzat dentistarenean lehenbailehen ordua eskatzea gomendatzen dizut.



### ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**

### 3 BARIKUA

**18:30** Antonio Arrillagaren erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxean.

**21:00** Menditour mendi filmak. Morkaikok antolatuta, Herriko Antzokian. Sarrera, 4 euro.

### 4 ZAPATUA

**15:30** Crosscountry moto txapelketa. Urnabitza moto klubak antolatuta, Idotorben.

**18:00** Palestinari elkartasuna adierazteko manifestazioa. Maalako parkean. Deba Bailarako Kontseilu sozialistak, eta Elgoibarko hainbat herritarrek antolatuta.

### 7 MARTITZENA

**18:00** Virginia Imazen hitzaldia. Haizeak antolatuta, Lilan, doan.

### 8 EGUAZTENA

**19:00** EHBilduren bilera, Toletxe, Artetxe eta San Pedroko bizilagunekin. Pedro Mugurutzako eskolan.

### Eta, Debabarrenean zer?

#### Mice eta Kokein taldeen kontzertua, Ermuan, gaur

Mice eta Kokein taldeek kontzertua emango dute gaur iluntzean, Ermua Antzokian. 20:30ean hasiko da, eta sarrerak 12 euro balio ditu. [Kutxabank.es](http://Kutxabank.es) atarian erosi daitezke sarrerak. Miren Narbaiza musikari eibartarraren proiektua da Mice. Napoka Iria taldea sortu zuen 2005ean Ander Mujika elgoibartarrekin, eta 2017tik bakarlari moduan dabil.

Kokein taldea 1999an sortu zuten Eibarren, eta gaur egun Iker Saenz de Zaitegi, Zalao Urain, Txitxes, Jatsu eta Haritz Letek osatzen dute taldea. Rock estiloko musika jotzen dute, eta 2022an atera zuten *Atomika* izeneko azken diskoa.

#### Zinea Herriko Antzokian



#### 'Chinas'

4, zapatua: 19:00 / 22:15

5, domeka: 19:00  
6, astelehena: 21:00



#### 'Tortugas Ninja: caos mutante'

5, domeka: 16:30

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

#### AZAROA

- 3 BARIKUA
- 4 ZAPATUA
- 5 DOMEKA
- 6 ASTELEHENA
- 7 MARTITZENA
- 8 EGUAZTENA
- 9 EGUENA
- 10 BARIKUA

#### Egunez

- Yudego
- Oruesagasti / ■ Garitaonandia
- Oruesagasti
- Barrenetxea
- Ibañez
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez

**2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**

**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)  
943 203 052**



#### 'Los osos no existen'

8 eguaztana: 21:00

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384





## *Rufino Eizaguirre Odriozola*

2023ko urriaren 26an hil zen, 75 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.***

Etxekoak



## *Rufino Eizaguirre Odriozola*

2023ko urriaren 26an hil zen, 75 urte zituela.

***Gure oroimenean bizi zaren artean,  
betiko izango zara gure bihotzetan.***

Zazpi kuadrilla



I.URTEURRENA

## *Andres Badiola Arakistain*

1936-02-18 / 2022-10-30

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
domekan, azaroaren 5ean, 11:00etan,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Gauero ezkututzen da eguzkia itsaso aldetik,  
baina zu ez zara aldenduko gure bihotzetatik.***

Etxekoak





Aste honetako erretratu zaharra Maria Luisa Galdosek bidali digu. Elgoibartarra da bera, baina urteak dira Villabonan bizi dela. Hala ere, ez da bere herriaz eta umetako lagunez ahaztu, eta bere argazkien artean aurkitu duen hau bidali du BARRENERA. Txankakuako zubian aterata dago argazkia. Ospakizun edo dantzaldiren bat izan zutela dirudi egun horretan, batzuk baserritar arropekin ikusten dira-eta. Gogora ditzagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen diren neskak.

Goiko ilaran ezkerretik eskubira: Rosa Mari, Maria Jesus Kortaberria, Belen Juaristi (✚), identifikatu gabea, Puri Juaristi, Arantxa Intxausti eta Rosa Mari.

Beheko ilaran ezkerretik eskubira: Kontxi Riaño, Mertxe Iribarren, Ana Mari Lasa eta Maria Luisa Galdos.



**Eta zu zer nahaigo dituzu koralina-izarak ala franelazkoak?**

**Etorri lagunak-era eta begiratu zein duzun gustukoen, neguari aurre egiten lagunduko dizuen aukera paregabea topatuko duzu bertan!**



# Egin zenutelako gara!

**eHSE** \ euskararen Historia  
Soziala Elgoibarren

1950-1990

Elgoibar herri euskalduna izateko 40 urteko herri-ahaleginaren historia kontatzera goaz.



# G R E M I O N E N G I D A



**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

**943 741 552**  
**606 431 120**

biok@biokdekorazioa.com

**IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK**

**PLAGANATURA**

Ondasuko Sekt. Ambientat

**618 198 760**

ivan@plaganatura.eus  
www.plaganatura.eus

**AROZTEGIA**

**BIENA, S.L.**  
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

**BULEGOA ETA ERAKUSKETA**

Pedro Migel Urzuzano, 8  
**943 740 512**  
Fax: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasa.com  
**943 740 279**



**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**

aroztegia - altzariak - elxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendaro  
**943 756 112**  
**636 497 485**

www.iraolagoitia.com

**ITURGINTZA**

**SANTANA**

Igor Santana

**ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.**

Urazandi kalea, 17, behea  
Elgoibar

**943 740 530 / 605 714 905**  
santanaiturgintza@gmail.com



**AROZTEGIA**

**IMAR**  
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
**943 531 471**  
**609 054 978**  
carpinteriaimar@hotmail.com  
@carpinteria\_imar

**Gidan agertzearen onurak!**

**23,10€** leian

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

**12** aldiz urtean

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakuslelho ikusiena.

**4,885** die astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

**943 743 704**  
**688 769 657**

baren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agire Kulturgunea, 3. 3. ezk  
20870 ELGOIBAR